

Kapital pribatuko egitasmo berria

- **Fineco Kutxabanken Banka Pribatua bere bezeroentzako kapital pribatuko fondo berria sortzear da, Elkargirekin eta Bankuko Enpresen Alorrarekin lankidegoan**

2021ko azaroaren 10ean. Fineco Kutxabanken Banka Pribatuak bere bezeroentzako inbertsio alternatiboen eskaintza zabalduko du, Bankuaren Enpresen Alorrarekin eta Elkargirekin elkarlanean sortzen ari den kapital pribatuko fondo berri baten bitartez.

Egitasmo honen helburua **enpresetako inbertsio zuzenen kudeaketako** merkatuan **indartsu eta epe luzeko ikuspegiarekin** ekitea izango da, nabarmen hazten ari den esparru honetan **erreferentziatzko eragile** bilakatu nahi baitu.

Proiektu hau Fineco Kutxabanken Banka Pribatuak duen **lidergoan eta inbertsio-eskarmentuan** oinarrituko da, horri Elkargik eta Kutxabanken Enpresen Alorrak dituzten lotura eta enpresen beharren gaineko ezagutza gehituta.

Fondo berriak kudeaketa propioa eta independentea izango ditu, guztira **250 milioi euroko** ondarea lortzea du helburu, eta **'evergreen'** moduan egituratuko da, hau da, **desinbertsiorako data zehatzik gabe.**

Fondoaren bitartez, Elkargik eta Kutxabankek **tokian tokiko enpresei buruzko ezagutza maila handiena duten guneetan inbertsio zuzenak** egingo ditu bateratze estrategikoak, horrela antzeko ekintzen aldean duen abantaila lehiakorraz baliatuko baita, Estatuan zein nazioartean. Beraz, inbertsioek konzentrazio handiagoa izango dute Euskadin, bai eta Nafarroan, Errioxan, Kantabrian, Zaragozan, Malagan, Kordoban eta Sevillan ere.

Fondoak honako konpainiak izango ditu jomuga batez ere: **3 eta 10 milioi arteko EBITDA**, bere alor ekonomikoetan ezarketa handia, kudeaketan frogatutako gaitasuna eta hazkunderako aurreikuspen sendoak dituzten enpresak.

Lankidetzaren honek **enpresetan eta inbertsioaren artean balioa sortu** nahi du, eta inbertsioen ekosisteman eredu garri bilakatzea aurreikusten du, enpresa-ehuna eta inbertsio alternatiboen bila dabiltzan **inbertsio pribatuen** ondarea lotzea erraztuko baitu.

Produktu berri hau kudeatzeko, Fineco Kutxabanken Banka Pribatuak bere sinergiak eta inbertsio kolektiborako erakundearen kudeaketan duen 30 urteko eskarmentua baliatuko ditu, kanpo-aholkulariz eta barne-adituz osaturiko lantalde bikoitzarekin.